



# LAMIA ETA BASAJAUN

Antton Irusta

*Jasone Irigoienen marrazkiak*

Desclée De Brouwer





**Do**lmen edo trikuharrien artean bizi zen Basajaun, izadiko errege; haizeen, eurien, ibaien, animalien eta landare ororen jaun. Denek obeditzen zioten, hala haizeek nola euriek, hala harriek nola ibaiek, hala landareek nola animaliek.



Ahots zakarra zuen  
Basajaunak, oso zakarra, eta  
denak izutzen zituen bere  
ahotsaz, eta horregatik  
obeditzen zioten. Trumoiak  
baino indar handiagoa zuen  
Basajaunaren ahotsak, eta  
munduko zaratarik itsusiena  
baino itsusiagoa zen  
ahots hura.

